

7. Funtsezko baliabideak

Baliabide fisikoak:



✚ **Produktuak:** SPAR-ekin egindako aliantzari esker bereiek arduratuko dira hornikuntzaz. Hau da, baliabide hori kanpoko enpresa batek garatuko du kostuak merkatzeko. (Externalizazioa)

✚ **Produktuak dendetara garraiatzeko ibilgailuak:** Gu ez gara arduratuko produktuak SPAR-en biltegitik gure dendetara mugitzeaz. Emango diguten zerbitzuan hau sartuta egongo da. (Externalizazioa)

✚ **Salmenta-makinak:**

✚ **Itsas edukiontzi berrituak eta egokituak (Denda fisikoa)**

✚ **Produktu freskoak mantentzeko hozte-ekipoak.**

✚ **Lokala garbi eta txukun mantentzeko garbiketako eta mantentze-lanetako ekipoa.**

✚ **Altzariak:** Erosketa orgak eta poltsa biodegradagarriak:

TOPA-n adierazi nahi dugun balioetako bat iraunkortasuna denez, erabaki dugu gure establezimenduetan ez direla plastikozko poltsak emango, material biodegradagarriarekin egindakoak baizik. Poltsa horiek plastikozko poltsen alternatiba jasangarri ona dira. Material organikoen nahasketa batekin egindako poltsak dira, hala nola arto- edo patata-almidoia eta zuntz sintetiko degradagarriak. Erabat degradatzen dira 18 bat hilabeteren buruan, inolako ingurumen-arazorik edo arazo kutsatzailerik sortzeko aukerarik gabe.

✚ **Bulegoa:** Uste dugu beharrezkoa dela bulego bat non taldeko kideak lan egin ahal dugun. Bertan egingo ditugu bilerak, bezeroekin deiak...

Baliabide intelektualak:



🚩 Marka eta logoa



🚩 Elkarteak


🚩 **Eslogan:** "Zure herriko supermerkatua, erosketak bakar batera!"

🚩 **Patentea:** Patente bat jarriko diogu gure zerbitzura, patentea jartzen ez badugu beste enpresa batzuek egin dezaketen dirua irabazteko modu bat delako. Horrek bezeroak kenduko lizkiguke eta gure enpresak duen balio berezia galtzea eragingo luke.

🚩 **Giza baliabideak:**

Organigrama:

Egitura hau aukeratu dugu langileak ordenatzeko moduaren arabera. Langile bakoitzaren gaitasunen arabera antolatzen da, sail guztiek enpresaren ikuspegi globalaren arabera lan egin dezaten, laneko produktibitateko eragozpenak saihesteko. Gainera, ez genuen nahi gure enpresa modu hierarkikoan antolatuta egotea. Horrela, lan-ingurune kolaboratiboagoa eskainiko dugu, egitura hierarkiko batek sor dezakeen tentsio eta estresik gabe. Garrantzitsua da langile guztiak eroso sentitzea elkarren artean komunikatzean.



Finantza baliabideak

Kreditu-lineak eta esku dirua

Enpresaren gastu operatiboak ordaintzeko, hala nola, langileen soldatak, garraio-kostuak, hornikuntza gastuak, etab

Bankuko maileguak

Hasieran, maileguak eskatu beharko ditugu, gure proiektua finantzatzeko dirua behar dugulako, baina, hazten garenean, dena gure kontura ordaintzea asmoa da.

Dirulaguntzak

Diru laguntzak eskatuko ditugu kostu baxuko finantzaketa lortzeko. Eskura dezakegun laguntza oro eskatu egingo dugu; horrela, gure enpresa gero eta gehiago haztea lortuko dugu